

HARREMANAK

Hainbat alditan aipatu bezala, Irati & Co enpresa ez da edozein motatako erosleei zuzendua egongo, alegia, gure enpresa zerbitzu publikoetara zuzendua dago, beraz, erosleak ere nahiko zehatzak dira. Hori dela eta, gure bezeroekin harreman sakona eta jarraia eduki nahi dugu, izan ditzaketen arazoak konpondu al izateko eta produktuaren jarraipena egiteko. Horretarako, lehenengo harremana automatizatua izango dugu bezeroekin, hau da, lehenik eta behin, beraiekin kontaktuan jarriko gara haien ideiarekin berri eman diezaguten. Ondoren, behin beraien ideia dakigunean, harreman pertsonalera joko genuke, hots, beraiekin geratu, produktua fisikoki erakutsi eta beste hainbat prozesu pertsonalizatuagoak lortzen saiatuko ginake. Gainera, denbora pasa hala, proiektuari aldaketa bat egin behar diogula pentsatuz gero, gure bezeroekin aurrez aurreko harreman bat edukitzen saiatuko ginateke, hartu-emanekoa.

Gure enpresaren harreman mota enpresa-bezeroen artean, dedikatutako laguntza pertsonala da. Izan ere, gure enpresak bezeroekin harreman pertsonalizatua izaten jarraituko da, funtsean, gure zakarrontzia entregatzeaz gain, aplikazioa ere pertsonalizatuko genioke herri bakoitzari, eta, gure produktuaren egoeraren jarraipena ere egingo genuke. Horrez gain, hitzarmenaren epeak direla medio, produktuaren jarraipena egitea ezinbestekoa izango zaigu.

Gure enpresak hainbat motibazio ditu bezeroekin harremanak sortzerako orduan eta hauek guk ditugun helburuen arabera da. Gure helburu nagusiak, hiru dira. Lehenik eta behin, bezero edo kontsumitzaile berriak lortu nahi ditugu. Izan ere, kontsumitzaileak behar ditugu gure enpresa aurrera atera ahal izateko eta hazteko. Hauek erakartzeko, beraien nahiak aztertu eta asetuko ditugu, gure enpresa-idea berritzailearekin. Bigarrenik, gure enpresak dauzkan bezeroei eutsi nahi diegu; oso garrantzitsua izan arren bezero berriak erakartzea, ohiak direnak mantendu egin behar dira. Bezero ohiak mantentzeak, erosle berriei konfidantza ematen die eta horrez gain, enpresa serio eta seguru bat garela erakusten du. Azkenik, salmenta kopuruak hazteko helburua dugu, gure enpresa mundu mailara hedatu eta errentagarria izateko.

Julen Garmendia, Xabier Urigoitia, Irati Zarranz, Anje Irastorza eta Irati Salgado